

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Jofemar-en laborategi elektrokimiko berri baten inaugurazioan izan da

Enpresak azken 5 urteotan 1,7 milioi euroko diru-laguntza jaso du Nafarroako Gobernuaren aldetik

Lunes, 08 de octubre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Jofemar enpresaren laborategi elektrokimiko berriaren inaugurazioan izan da gaur goizean, Azkoien-en. Bertan berriz kargatzeko fluxuzko bateriak egingo dira hainbat aplikaziotarako: energia berriztagarria gordetzeko, mikro-sareetarako eta ibilgailu elektrikoetarako, esaterako. Proiektu aitzindaria da, eta 1,3 milioi euroko hasierako inbertsioa du.



Barcina Lehendakaria Beatriz Ruiz-en azalpenak entzuten.

Ekitaldian izan dira, gainera, Azkoieneko alkate María José Vidorreta eta enpresako zuzendaritzako kideak. Haien artean, Félix Guinduláin Vidondo lehendakaria; Félix Guinduláin Busto lehendakariordea; eta zuzendari nagusi Miguel Ángel Carrero Espinosa.

Barcina Lehendakariak bere agerraldian adierazi duenez, Jofemar "lankidetzeta publiko-privatu eraginkorraren adibide argia da eta jarraitu behar dugun bidea erakusten digu krisi gogor hau gainditi ahal izateko".

Alde horretatik, Nafarroako Lehendakariak azaldu du "industriak eta lanpostuak mantendu, gehitu eta finkatuko dira ekimen pribatuaren aldetik, beti bezala. Gure aldetik, Administrazioaren zeregina ekimen horiei laguntza ematea izan behar da ahal den guztian, oztoporik jarri gabe".

Laborategiak 130 metro koadro baino gehiagoko azalerako espazioa du, enpresak Azkoien-en duen instalazioetan bertan dagoena. Hura abian jartzeko hiru pertsona kontratatu dira, bi ingeniari kimiko eta ingeniari elektriko bat. Proiektuaren zati bat EIBaren funtsekin finantzatuta dago, Moderna zigilua baitu, eta baita Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren bitartez ere.

1,7 milioi laguntzetan

Foru Gobernuak % 100 kapital nafarra duen enpresari laguntzak eman dizkio azken bost urteotan, 1.730.000 euro baino gehiago, bertako instalazioak hobetzen, berrikuntzan, eraginkortasun energetikoan eta nazioartekotzean egindako inbertsioengatik.

Zehazki, ia milioi bat euro jaso du berrikuntzan egindako ia 3,5 milioi euroko inbertsioengatik eta 650.000 eurotik gora zazpi milioitik gorako inbertsioengatik. Azken inbertsio horiek instalazioak handitzeko nahiz hobetzeko eta ekipoak eguneratzeko egin dira.

Gainera, Nafarroako Gobernuak enpresari 57.000 euroko laguntza eman dio bere nazioarteko patenteak lortzen, eta beste 30.000 euroko diru-laguntza eman du eraginkortasun energetikoaren programen esparruan erregai fosilak kontsumitzen zuten sei ibilgailu ibilgailu elektriko bihurtzeagatik.

Jofemar Félix Guinduláin Vidondo-k sortu zuen 1971n. Gaur egun 200 langile inguru ditu, eta haietatik 130 Azkoien-en ari dira lanean. 29 milioi euroko fakturazioa du eta 52 herrialdetan baino gehiaqotan daqo. Makina automatiko eta sistemak diseinatzen, eqiten eta merkaturatzen ditu, batez ere.



Jofemar-en laborategi berriko inaugurazioren une bat.